euskalmendizalefederazioa
FEDERACION VASCA DE MONTAÑA
BASQUE MOUNTAINEERING FEDERATION

TERNUA

EMF-REN MENDIKO ESKIKO XL. ZEHARKALDIA



EGUNA: 2017ko martxoaren 19a

TOKIA: La Sarra – Sanchacollons 2697m (Musalesera aukerazko igoera) – La Sarra.


SARRERA:
Batzuetan badirudi denbora ez doala aurrera eta atzo izan zela mendizale ausarta batzuek, EMFren eskutik, Tatxerasetik Selva de Ozarako mendiko eskiko lehen zeharkaldia egin zutela. Irteera harekin hasiera eman zitzaion EMFko eskiko ekitaldi ofizialei. 2017ko ekitaldiarekin, EMFko mendiko eskiko zeharkaldiak bere 40. irteera burutuko du. Urte guzti hauetan zehar denak era garrantzitsuan eboluzionatu du: zaletuen kopurua, materiala, mendia egiteko eta ikusteko era… eta guzti honekin mendiko eskia gustuko eta gozatzen dugun mendizaleok aukera guzti hauetaz baliatzeko eta gozatzeko aukera dugu.


Berriro gonbidatzen zaituztegu 40. edizioa izango den EMFren jarduera ofizial honetan parte izatera. Mendiko eskirako aukera handiak dituen ortzi-muga berriak esploratuko ditugu eta beste zona batzuk aurkitzera joango gara. Azken elurte hauekin baldintza ezin hobeak izango ditugula dirudi, guztiok mendiko eskiko egun zoragarri batez goza dezagun. Horretarako, Sallent de Gallego ipar-ekialdean dauden mendietatik hurrengo ibilbidea proposatzen dizuegu:

AURREIKUSITAKO IBILBIDEA:

La Sarra 1440m – Sanchacollons 2697m – La Sarra.

Edo aukerazko igoera (elur baldintza eta partaideen arabera): La Sarra 1440m – Sanchacollons 2697m – Ibon de Ibonciecho 2225m – Musales 2653m – La Sarra.





ARAUDIA:
Mendiko Eskiko Zeharkaldi honetan, urte honetako federatu-lizentzia duten mendiko eskiatzaile guztiek parte hartu ahal izango dute.

Parte-hartzaile bakoitzak, nahitaez, ondoko materiala eraman beharko du gainean irteera-puntuan:

- Zeharkaldirako finkagailuak dituzten eskiak.
- Itsas txakurren larruak.
- Hortz irristezinak.
- Pioleta eta kranpoiak.
- ARVA.

Zeharkaldia hasi aurretik materiala egiaztatuko da, eta parte-hartzaileren batek zehaztutako material guztia ez badu, ez zaio ofizialki parte hartzen utziko.

Ibilbidea behar bezala balizatuta egongo da, eta kontrolak ezarriko dira antolatzaileei beharrezkoa iruditzen zaien tokietan. Parte-hartzaile batek proba uzten badu edo beste arazoren bat sortzen bada, beharrezkoa izango da horren berri ematea kontrol-puntu horietan. Kontrol-puntuak antolatzaileekin, sendagileekin nahiz EMFren mendiko sorospen-taldearekin komunikatuta egongo dira.
.
Ibilbide osoan, partaide guztien atzetik joango den talde bat egongo da. Antolatzaileek, kontrolen bidez, zeharkaldiaren edozein puntutan parte-hartzaileei proba uzteko gomendatzeko eskubidea izango dute.

Antolatzaileek, eguraldiaren edo elurraren egoeraren ondorioz ibilbidea aldatzeko edota proba bertan behera uzteko erabakia hartzeko eskubidea izango dute.

Antolatzaileek ez dituzte beren gain hartzen parte-hartzaileek izan ditzaketen kalteak edo hirugarrenei eragin diezazkieketenak, federatu-lizentziak estaltzen baititu kalte horiek. Ibilbidean, zenbait kontroletan eta zeharkaldiaren amaieran sendagile talde bat izango da, eta EMFren mendiko sorospen-taldearekin ere komunikatuta egongo dira etengabe.

Parte-hartzaileren batek ARAUDI honetako punturen bat betetzen ez badu, zeharkalditik kanpo geldituko da antolatzaileen erabakiz.

IZENA EMATEKO KUOTA:
Parte-hartzaile bakoitzak 45,00,-€. ordaindu behar ditu; prezioan afaria, Pueyo de Jacako aterpean ostatua (BEHARREZKOA DA LO EGITEKO ZAKUA ERAMATEA), gosaria eta azken bazkaria sartzen dira. Zeharkaldian parte hartuko duten guztiek opari bat ere jasoko dute.

Martxoaren 18ko (larunbata) afaria 20:00etan izango da; hurrengo eguneko gosaria, goizeko 7:00etan, eta bazkaria, zeharkaldia amaitutakoan: 2017ko martxoaren 19an, igandean, 14:30ean.

GEHIENEZ ERE 80 PERTSONAK PARTE HARTU AHAL IZANGO DUTE.

IZEN-EMATEAK: **www.rockthesport.com** **45 €**

Azken orduko ezustekoak saihesteko, izena emateko epea martxoaren 14ean, asteartean, amaituko da.

LAGUNKIDEAK:
Parte-hartzaileekin batera doazen lagunkideek beren kabuz bilatu beharko dute ostatua